AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5548

1690/2013 EBAZPENA, urriaren 31koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Luis Antonio Castaño González jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako Zuzendariorde izendatzen duena.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako Zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia 2013ko irailaren 25eko EHAAn argitaratu zen (183. zk.), zuzendari gerente honen uztailaren 24ko 1151/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztutako agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Luis Antonio Castaño González jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Luis Antonio Castaño González jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gurutzeta-Barakaldo, 2013ko urriaren 31.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.